www.zamudiokoudala.net
Sabino Arana plaza 1, 48170 Zamudio, Bizkaia
Tel: 944060990 / Faxa: 944030622 / udala@zamudiokoudala.net

ZAMUDIOKO UDALAREN ZERGA-IKUSKAPENEAN ETA HARTATIK ERATORRITAKO ZEHAPEN-PROZEDURETAN LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Zamudioko Udalaren udal-zergak ikuskatzeko eginkizunetan eta Udal honen hurrengo ekitaldietarako Ikuskapen Planetik erator daitezkeen zehapen-prozeduretan laguntza teknikoa eta juridikoa ematea izango da kontratuaren xedea.

Berariaz kanpo geratzen dira bai agintea erabiltzea dakarten jarduerak, une oro Zamudioko Udaleko funtzionarioek gauzatuko dituztenak, bai funts publikoen zaintza, hala badagokio.

Enpresa esleipenduna ez da inola ere ikuskapen-organoa izango, eta organikoki ez da Udalaren mende egongo, eta ez da Udalaren administrazio-egituran sartuko.

Erreferentziako kontratua gauzatuz bete nahi den beharrizana Zamudioko zerga-

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS QUE HA DE REGIR LA CONTRATACIÓN DE LA PRESTACIÓN DE SERVICIO DE ASISTENCIA TÉCNICA EN LA INSPECCIÓN TRIBUTARIA Y SUS PROCEDIMIENTOS SANCIONADORES DERIVADOS EN EL AYUNTAMIENTO DE ZAMUDIO

1. OBJETO DEL CONTRATO

El contrato tendrá por objeto las labores de asistencia técnica y jurídica en las funciones de la inspección de los tributos de carácter municipal del ayuntamiento de Zamudio y en los procedimientos sancionadores que se pudieran derivar del Plan de Inspección para los próximos ejercicios de este Ayuntamiento.

Quedan expresamente excluidas tanto las actuaciones que comportan ejercicio de autoridad, que serán ejercidas en todo momento por personal funcionario del Ayuntamiento de Zamudio, como la custodia, en su caso, de fondos públicos.

La empresa que resulte adjudicataria no tendrá, en ningún caso, el carácter de órgano de inspección, ni dependerá orgánicamente del Ayuntamiento, ni se integrará en su estructura administrativa.

La necesidad que se pretende satisfacer mediante la ejecución del contrato de referencia, consiste

Sinatzaile / Firmante: ZAMUDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ZAMUDIO Data: 2025-09-03 11:17:22(UTC) Fecha: 03/09/2025 11:17:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {602b882f-0d72-4632-9da1-d1086f620d2f} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

ikuskapenean laguntza teknikoa eta juridikoa ematean datza; izan ere, Zamudioko Udalak ez du langile propiorik kontratuak xede dituen lanak garatzeko.

en la asistencia técnica y jurídica en la inspección tributaria de Zamudio, necesidad derivada de la falta de medios personales propios por parte del Ayuntamiento de Zamudio, para el desarrollo de los trabajos que constituyen su objeto.

2. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

1. Enpresa esleipendunak aholkularitza espezifikoa emango die Zamudioko Udalaren zerbitzura dauden funtzionarioei, baldin eta zerga-ikuskapeneko eginkizunak dituzten organoetan integratutako lanpostuak betetzen badituzte, eta organo horiei ere. Kontratistak kontratuaren pleguak, bere eskaintza eta Udalak emandako jarraibideak zorrotz betez eman beharko du zerbitzua.

2. Aholkularitza hori etengabeko harremanaren bidez egingo da telefonoz, posta elektronikoz, aurrez aurre, udal-bulegoetan eta ikuskapen-jardueren arabera legez dagokion lekuan, ikuskapen-espedienteak aztertu eta izapidetzean agertzen diren kontu teorikoak eta praktikoak behingoan ebazteko.

3. Horretarako, Udalak erraztasunak emango ditu, batez ere artxibo informatikoetan, Udalak edo beste administrazio batzuek udalerriko zergapekoei buruz izan dezaketen informazioa bidaltzeko. Udalak lagatako edo emandako datuekin, kontratistak gorde egin beharko du dagokion erreserba, eta ezin izango ditu erabili

2. CARACTERÍSTICAS DEL SERVICIO

1. La empresa adjudicataria prestará asesoramiento específico al personal funcionario al servicio del Ayuntamiento de Zamudio que desempeñen los correspondientes puestos de trabajo integrados en los órganos con funciones de inspección tributaria y a los mismos órganos. El contratista deberá prestar el servicio con estricto cumplimiento a los pliegos del contrato, su oferta y las instrucciones dictadas por el Ayuntamiento.

2. Dicho asesoramiento se realizará mediante contacto permanente por vía telefónica, correo electrónico, de manera presencial, en las oficinas municipales y en el lugar que legalmente proceda dependiendo de las actuaciones inspectoras, para resolver en el acto cuestiones teóricas y prácticas que se planteen en el estudio y tramitación de los expedientes de inspección.

3. Para ello el Ayuntamiento facilitará la remisión, principalmente en archivos informáticos, de la información que el Ayuntamiento u otras Administraciones, pueda tener sobre los obligados tributarios del municipio. Con los datos cedidos o facilitados por el Ayuntamiento deberá el contratista guardar la

Sinatzaile / Firmante: ZAMUDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ZAMUDIO Data: 2025-09-03 11:17:22(UTC) Fecha: 03/09/2025 11:17:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {602b882f-0d72-4632-9da1-d1086f620d2f} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

kontratu honen xede ez diren beste helburu batzuetarako.

4. Kontratistak bere bulegoetan egingo ditu lanak, funtzionarioekin harremanetan.

Hala ere, kontratuari atxikitako enpresa esleipenduneko langileek Zamudioko Udalean egon beharko dute, gutxienez bi egun astean eta 5 ordu egun horietako bakoitzean 9:00 etatik 14:00 etara.

Horretarako, Udalak espazio bat jarriko du enpresa esleipenduneko langileek lan egin ahal izan dezaten.

Jarduketak Ikuskapen Planean aurreikusitakoaren arabera garatzeko beharrezkoa bada, enpresa esleipenduneko langileei dagokien presentzialtasuna eskatuko da.

5. Kontratistak bermatu egin beharko du zerbitzua ele bitan emango duela, ahoz edo idatziz, hirugarrenekiko harremanetan, herritarrei Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan (euskaraz eta gaztelaniaz) arreta egokia emango zaiela bermatzeko.

6. Aholkularitza hori Ikuskapen Planean aurreikusitako jarduerak gauzatzeko emango da batetik, eta Plan hori idaztean, enpresa esleipendunak lagundu egin beharko du, Zamudioko Udalak hala eskatzen badio; eta bestetik, jarduketa horietatik erator daitezkeen

reserva correspondiente, no pudiendo utilizarlos para otros fines distintos que los que son objeto del presente contrato.

4. El contratista desarrollará los trabajos en sus propias oficinas, trabajando en conexión con el personal funcionario.

Sin embargo, el personal de la empresa adjudicataria adscrito al contrato deberá estar presencialmente en el Ayuntamiento de Zamudio, al menos dos días por semana y 5 horas por cada uno de esos días, en horario de 9:00 a 14:00.

Para ello, el Ayuntamiento habilitará un espacio para que pueda trabajar el personal de la empresa adjudicataria.

En caso de resultar necesario para el desarrollo de las actuaciones conforme a lo previsto en el Plan de Inspección, se requerirá la presencialidad que corresponda al personal de la empresa adjudicataria.

5. El contratista deberá garantizar la prestación bilingüe del servicio en cualquiera de sus formas, orales o escritas, de relaciones con terceros que garanticen la correcta atención a la ciudadanía en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca (euskera y castellano).

6. El ámbito en el que se prestará dicho asesoramiento será la ejecución de las actuaciones previstas en el Plan de Inspección, en cuya redacción la empresa adjudicataria deberá colaborar si así se le solicita desde el ayuntamiento de Zamudio, los expedientes

Sinatzaile / Firmante: ZAMUDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ZAMUDIO Data: 2025-09-03 11:17:22(UTC) Fecha: 03/09/2025 11:17:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {602b882f-0d72-4632-9da1-d1086f620d2f} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

zehapen-espedienteetan eta prozedura horiekin lotuta bideratzen diren administrazio-errekurtsoen ebazpenean emango da aholkularitza.

7. Inola ere ez da prestazioaren xede izango beren izaeragatik agintea erabiltzea eskatzen duten edo funtzionarioentzat berariaz erreserbatuta dauden lanak eta eginkizunak egitea. Ikuskapen Planean aurreikusitako funtzionarioek beteko dituzte eginkizun horiek.

8. Enpresa esleipendunak urteko memoria egin beharko du, aldi horretan kontratua gauzatzean egindako lanen berri emateko, eta Udalak eskatutako estatistikak, datuak, laburpenak eta xehetasunak egiteko.

sancionadores que de la ejecución de dichas actuaciones se puedan derivar y la resolución de los recursos administrativos que se sustancien en relación con dichos procedimientos.

7. En ningún caso resulta objeto de la prestación la realización de las labores y funciones que por su carácter impliquen ejercicio de autoridad o estén específicamente reservadas a personal funcionario. Dichas funciones serán realizadas por las personas funcionarias previstas en el Plan de Inspección.

8. La empresa adjudicataria deberá elaborar una Memoria anual comprensiva de los trabajos realizados durante la ejecución del contrato en ese periodo, así como elaboración de estadísticas, datos, resúmenes y detalles que sean requeridos por el Ayuntamiento.

3. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratu honen arduraduna Zamudioko Udaleko diruzaina izango da.

3. RESPONSABLE DEL CONTRATO

El responsable del presente contrato será el tesorero del Ayuntamiento de Zamudio-

4. BURUTZEKO EPEA

Bi urteko iraupena eta urtebeteko bi luzapen posible aurreikusten dira, hasitako espedienteen egoeraren arabera.

4. PLAZO DE EJECUCIÓN

Se prevé una duración de 2 años más dos posibles prórrogas de un año en función del estado en el que se encuentren los expedientes incoados.

5. KONTRATUAREN PREZIOA

5. PRECIO DEL CONTRATO

Sinatzaile / Firmante: ZAMUDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ZAMUDIO Data: 2025-09-03 11:17:22(UTC) Fecha: 03/09/2025 11:17:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {602b882f-0d72-4632-9da1-d1086f620d2f} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Kontratuaren zenbateko osoa, hasiera batean kuantifikatu ezin dena, laguntzen den ikuskapen-jarduketen eta horietatik eratortzen diren emaitzen araberakoa izango da, paragrafo honetan adierazitako portzentaje-prezioetan eta baldintzetan.

El importe total del contrato que, inicialmente no puede ser cuantificado, dependerá de las actuaciones inspectoras en las que se coadyuve y de los resultados que de las mismas se deriven, en los términos y con los precios porcentuales que se indican en el presente apartado.

Gehienez, 300.000 € (BEZa barne), 150.000 € urtean (BEZa barne).

El precio que se estima como total máximo es de 300.000 € (IVA incluido) a razón de 150.000 €/año (IVA Incluido).

Kontratuaren balio zenbatetsia 660.000,00 € da, aurreikusitako aldaketak barne.

El valor estimado del contrato resulta 660.000,00€ incluidas las modificaciones previstas.

Kontratu honen modalitatearen arabera, kontratuaren urteko gehieneko zenbatekoa kontuan hartuta, kontratistari ordaintzeko prezio zehatzak ehuneko jakin batzuetan finkatzen dira, hura osatzen duten jardueretan lortutako azken emaitzaren arabera, eta bereizi egiten dira aldian aldiko sortzapeneko zerga-kontzeptuak diren ala ez. Portzentaje-prezio horiek lizitazio-prezioak dira, hau da, lizitatzaileen eskaintzetan hobetu daitezkeenak.

De acuerdo con la modalidad de este contrato, considerando el tope máximo de importe anual del mismo, los precios concretos de retribución al contratista se fijan en unos porcentajes en función del resultado final obtenido en las diferentes actuaciones que lo integran diferenciándose según se trate de conceptos tributarios de devengo periódico o puntuales, siendo estos precios porcentuales los precios de licitación es decir, los susceptibles de mejorarse en las ofertas de los licitadores.

Ikuskapen-jarduerarako lankidetza-lanak eta laguntza teknikoko lanak egin direneko espedienteak ordainduko dira, baldin eta jarduera horietan zerga-oinarri ezkutuak, aitortu gabeak edo ikuskapen-aktak egiten diren egoera irregularrak aurkitzen badira, eta zerga-likidazioak eta interes-likidazioak eta dagozkien zehapenak ezartzen badira,

Se retribuirán los expedientes seguidos en los que se hayan desarrollado labores de colaboración y asistencia técnica para la actuación inspectora en la que se descubran bases imponibles ocultas, no declaradas, o situaciones irregulares en los que se realicen actas de inspección, que finalicen con liquidaciones tributarias y de intereses y la imposición de las sanciones correspondientes, con aceptación de la conformidad del

Sinatzaile / Firmante: ZAMUDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ZAMUDIO Data: 2025-09-03 11:17:22(UTC) Fecha: 03/09/2025 11:17:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {602b882f-0d72-4632-9da1-d1086f620d2f} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

zergadunaren adostasuna onartuta edo desadostasun-akta idatzita, irmoak badira.

6. KONTRATUA ALDATZEA

Kontratua aldatu ahal izango da, kontratuaren prezioaren % 10eko urteko mugaraino, baldin eta, kontratua gauzatzearen ondorioz, Diruzaintzan sartutako zenbatekoetatik edo ikuskapen-jardueratik kontratuaren xedearen arabera lor daitezkeenetatik, aurreikusitako ordainketa-sistemaren arabera, hasieran kuantifikatutako urteko gehieneko prezioan edo aurrekontu-mugaren gainetik fakturatu beharreko kopuruak lor badaitezke.

Aurreikusitako aldaketa egiteko, administrazio kontratatzailearen berariazko erabakia beharko da beti. Aldaketa-proposamenean modu zehatz eta kuantifikatuan zehaztuko dira lortutako diru-sarrerak eta aldaketa gomendatzen edo eragiten duten inguruabarrak.

7. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Laguntza teknikoko kontratua denez, enpresa esleipendunak tokiko zergak ikuskatzen eskarmentu handia duten pertsonak jarriko ditu kontratua gauzatzeko. Horregatik, kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko, gutxienez, honako bi giza baliabide hauek izendatuko ditu:

contribuyente o con acta de disconformidad, que adquieran el carácter de firmes.

6. MODIFICACIÓN DEL CONTRATO

Procederá la modificación del contrato hasta un límite anual del 10% del precio del mismo cuando de la ejecución del propio contrato se derive que, de las cantidades ingresadas en la Tesorería o previsiblemente obtenibles de la actividad de inspección en los términos objeto del contrato, se pudieran obtener, según el sistema de retribución previsto, cantidades a facturar por encima del límite presupuestario o precio máximo anual de contrato inicialmente cuantificado.

La modificación prevista requerirá en todo caso acuerdo expreso de la administración contratante. En la propuesta de modificación se detallarán de forma concreta y cuantificada los ingresos obtenidos y las circunstancias que aconsejan o motivan la modificación.

7. MEDIOS HUMANOS Y MATERIALES

Por tratarse un contrato de asistencia técnica, la empresa adjudicataria aportará para la ejecución de este contrato personas con amplia experiencia en la inspección de tributos locales. Por ello, designará como mínimo para la prestación de los servicios objeto del contrato los dos siguientes medios personales:

Sinatzaile / Firmante: ZAMUDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ZAMUDIO Data: 2025-09-03 11:17:22(UTC) Fecha: 03/09/2025 11:17:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {602b882f-0d72-4632-9da1-d1086f620d2f} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

- Proiektuburu 1, Zuzenbideko eta/edo Ekonomia Zientzietako gradua edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradua (edo parekoak), gutxienez bost urteko esperientzia duena aholkularitza juridikoko eta zergetan laguntzeko zerbitzuak ematen. Azken hori izango da Udalaren aurrean ordezkaritza izango duena kontratuaren xede diren lanak gauzatzeko eta behar bezala egiteko.

-1 jefe de proyecto, grado en Derecho y/o CC Económicas o Administración y Dirección de Empresas (o equiparables) con una experiencia mínima de cinco años en la prestación de servicios de asesoramiento jurídico y colaboración en matería de tributos, que será quien ostente la representación ante el Ayuntamiento en orden a la ejecución y buena marcha de los trabajos objeto del contrato.

- Laguntzaile bat, Zuzenbideko eta/edo Ekonomia Zientzietako gradukoa, edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradukoa (edo parekoak), gutxienez bost urteko esperientzia duena zergen arloan lankidetza eta aholkularitza juridiko eta teknikoko zerbitzuak ematen, eta hark egingo ditu egin beharreko lanen aholkularitza- eta berrikuspen-lanak.

-1 colaborador grado en Derecho y/o CC Económicas o Administración y Dirección de Empresas (o equiparables) con una experiencia mínima de cinco años en la prestación de servicios de colaboración y asesoramiento jurídico y técnico en materia de tributos, que será quién realice las tareas de asesoramiento y revisión de los trabajos a realizar.

Enpresa esleipendunaren langileak enpresa horren mende egongo dira organikoki eta funtzionalki, eta haren kontura izango dira langileen ordainsariak, Gizarte Segurantzaren betebeharrak eta gainerako zerga-betebeharrak. Zerbitzura atxikitako langileek ez dute inolako zerbitzu-harremanik izango Zamudioko Udalarekin, ez da eskubiderik sortuko Udalarekiko ez inolako lan-loturarik izango Udalarekin.

El personal propio de la empresa adjudicataria dependerá orgánica y funcionalmente de la misma que se hará cargo de sus retribuciones, así como de las obligaciones de la Seguridad Social y demás obligaciones tributarias. En ningún caso el personal adscrito tendrá relación de servicio de ningún tipo con el Ayuntamiento de Zamudio, no generará derechos frente al Ayuntamiento y no ostentará vínculo laboral alguno con éste.

Kontratistaren kontura izango dira langileak lekualdatzeko garraiobide egokiak eta nahikoak, kontratatutako laguntzarako behar diren egiaztapenak egiteko eta datuak hartzeko. Kontratuaren berezko funtzioak garatzeko

Serán por cuenta del contratista los medios de transporte adecuados y suficientes para el desplazamiento de su personal con el fin de realizar comprobaciones y toma de datos requeridos para la asistencia contratada. Los

Sinatzaile / Firmante: ZAMUDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ZAMUDIO Data: 2025-09-03 11:17:22(UTC) Fecha: 03/09/2025 11:17:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {602b882f-0d72-4632-9da1-d1086f620d2f} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

beharrezkoak diren ekipo, material eta baliabide informatiko eta teknikoak ere enpresa esleipendunaren kontura izango dira.

equipos, material y recursos informáticos y técnicos necesarios para el desarrollo de las funciones propias del contrato, serán también por cuenta de la empresa adjudicataria.

Lizitatzaileek, beren lan-planean, beharrezko informazio-prozesuak egiteko egokien iritzitako sistemak proposatu beharko dituzte, udal-arduradunei datuen eskuragarritasun eta sarbide osoa bermatuz.

Los licitadores habrán de proponer en su plan de trabajo los sistemas que estimen más adecuados para la realización de los procesos de información necesarios, garantizando la plena disponibilidad y acceso a los datos a los responsables municipales.

Zamudioko Udalak behar adina leku jarriko du udal-bulegoetan, agindutako laguntza eta lankidetza emateko.

El Ayuntamiento de Zamudio habilitará, el espacio suficiente en las Oficinas Municipales para el desempeño de la asistencia y colaboración encomendadas.

8. DATUEN BABESA

8. PROTECCIÓN DE DATOS

Datu horiei dagokienez, esleipenduna tratamendu-eragiletzat hartuko da, DPBLOn xedatutakoaren ondorioetarako. Horregatik, datu pertsonalak jakinarazteak edo eskuratzeak ez du esan nahi inola ere datu horiek esleipendunari lagatzen zaizkionik, ezta datu horiek gordetzeko ere; aitzitik, datu horiek ematea kontratua betetzeko baino ez da. Udalak emandako datuak haren jarraibideen arabera bakarrik erabiliko ditu.

En relación con estos datos el adjudicatario ostentará la consideración de encargado de tratamiento, a efectos de lo dispuesto en la LOPDP. Por ello, la comunicación o el acceso a datos personales no implicará en modo alguno la cesión de los mismos al adjudicatario, ni siquiera a efectos de su conservación, sino que se trata únicamente de una simple entrega de los mismos exclusivamente a los efectos de dar cumplimiento al contrato. Utilizará los datos facilitados por el Ayuntamiento únicamente conforme a sus instrucciones.

Datuak ezingo dira aplikatu edo kontratu honetan agertzen den zerbitzu-prestazioa ez den beste helburu baterako erabili, ez beste

No se podrán aplicar los datos ni utilizarlos con fin distinto al de la prestación de servicios que figura en el presente contrato, ni comunicarlos, ni

Sinatzaile / Firmante: ZAMUDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ZAMUDIO Data: 2025-09-03 11:17:22(UTC) Fecha: 03/09/2025 11:17:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {602b882f-0d72-4632-9da1-d1086f620d2f} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

pertsona batzuei jakinarazi, ezta gordetzeko ere, ez eta hirugarrenei datuen kopiak edo bikoiztuak eman, eta entregatutako fitxategietan jasotako datuak beste edozein modutan zabaldu edo ustiatu, kontratatutako zerbitzuaren prestazioa amaitu ondoren ere ez.

siquiera para su conservación, a otras personas, ni facilitar a terceros copias o duplicados de los datos, ni divulgar o explotar de cualquier otra forma los datos contenidos en los ficheros entregados, incluso una vez finalice la prestación del servicio contratado.

Enpresa esleipendunak Ikuskapen Planaren izaera erreserbatua zaindu beharko du. Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean lortutako datu, txosten edo aurrekariak isilpekoak dira, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 94. artikuluan ezarritakoaren arabera (2/2005). Enpresak isilpeko izaera hori bermatzeko beharrezko mekanismoak erabili beharko ditu uneoro.

La empresa adjudicataria deberá velar por el carácter reservado del Plan de Inspección. Los datos, informes o antecedentes obtenidos por la Administración tributaria en el desempeño de sus funciones tienen carácter reservado, de acuerdo a lo establecido en el artículo 94 de Norma Foral General Tributaria (2/2005). La empresa deberá en todo momento adoptar los mecanismos oportunos para garantizar dicho carácter reservado.

Kontratua amaitzean, enpresak datu pertsonalak suntsitu edo Udalari itzuli beharko dizkio. Udalak suntsitzearen aldeko berariazko adierazpenik egin ezean, datuak itzuli egin beharko dira. Ondorio horietarako, Zamudioko Udalak bere gain hartuko du dagozkion administrazio-espedienteak irekitzeko oinarri gisa balio duten dokumentu guztiak gorde eta zaintzea.

A la finalización del contrato la empresa deberá destruir o devolver los datos personales al Ayuntamiento. A falta de indicación expresa por parte del Ayuntamiento optando por la destrucción, los datos deberán ser devueltos. A estos efectos, el Ayuntamiento de Zamudio se hará cargo de guardar y custodiar bajo su exclusiva responsabilidad todos los documentos que sirvan de base para la incoación de los correspondientes expedientes administrativos.

9. MEMORIA

9. MEMORIA

Memoria bat aurkeztu beharko da, kontratuari atxikitako langileak, bere formakuntza eta esperientzia zehaztuz eta egin beharreko lanak zehatz-mehatz deskribatuz. Memoria horretan,

Deberá presentarse una memoria donde se determine el personal adscrito al contrato, su formación y experiencia y se describan de forma detallada los trabajos a realizar, con indicación de

Sinatzaile / Firmante: ZAMUDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ZAMUDIO Data: 2025-09-03 11:17:22(UTC) Fecha: 03/09/2025 11:17:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {602b882f-0d72-4632-9da1-d1086f620d2f} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

metodologia eta plangintza, tresna informatikoak eta sareak, segurtasuna eta kudeaketa adieraziko dira, preskripzioen agiri honetan deskribatutako zereginak eraginkortasunez eta efizientziaz egin ahal izateko, eta eskatutako baldintza teknikoak bete beharko dira.

la metodología y planificación, herramientas informáticas y redes, seguridad y gestión que permitan una realización eficaz y eficiente de las tareas descritas en el presente pliego de prescripciones y con los requisitos técnicos exigidos.

ZAMUDIOKO UDALEKO DIRUZAINA

TESORERO DEL AYUNTAMIENTO DE ZAMUDIO

Sinatzaile / Firmante: ZAMUDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ZAMUDIO Data: 2025-09-03 11:17:22(UTC) Fecha: 03/09/2025 11:17:22 (UTC)
Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {602b882f-0d72-4632-9da1-d1086f620d2f} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Sinatzaile / Firmante: ZAMUDIOKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE ZAMUDIO Data: 2025-09-03 11:17:22(UTC) Fecha: 03/09/2025 11:17:22 (UTC)

Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {602b882f-0d72-4632-9da1-d1086f620d2f} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Zamudio Udala

www.zamudiokoudala.net